

**ETXEBIZITZEN FUNTS SOZIALAREN ONURADURANRE ESKABIDEA**

JAUN/ANDREAK.: \_\_\_\_\_ IFZ: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

**ESKATZEN DU** Laboral Kutxak Etxebizitzen Funts Sozialari emandako etxebizitzetako baten errentamendu-kontratua eskuratzeko. Hona hemen etxebizitza horiek, erreferentziako hurrenkeran:

	<b>Herria</b>	<b>Posta-kodea</b>	<b>Erreferentzia zk.</b>
1 <sup>a</sup>			
2 <sup>a</sup>			
3 <sup>a</sup>			

**ESKATZAILEAK ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DU** Familia Unitateak, jarraian zerrendatzen diren kideek osatutakoak, 2013/01/17an formalizatutako Etxebizitzen Funts Soziala sortzeko Hitzarmenaren klausuletan eskatutako baldintzak betetzen dituela (ikus dokumentu honen atzealdea).

<b>IFZ</b>	<b>Izen-Abizenak</b>

**ESKATZAILEAK BAIMENA EMATEN DIO** Laboral Kutxari bere datuak eman diezazkien bizi den udalerriri dagokion Udaleko edo Probintziako Diputazioko gizarte-zerbitzuei, horiek txosten bat egin dezaten, eta, bertan, eskaera egiten duen Familia Unitatearen gizarte-inguruabarrak eta etxebizitza horien errentari izateko aukera baloratuko da.

Aurreko guztiaren frogagiri gisa, honako **AGIRI HAUEK AURKEZTEN DIRA**:

- a) Errenten/errentarik gabekoen, lanaren edo jarduera ekonomikoen ziurtagiria.
- b) **Familia-liburua** (edo izatezko bikote gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria).
- c) **Errolda-ziurtagiria** (edo bizi den udalerrria egiaztatzen duen agiria).
- d) Baldintzak betetzen direnean: **desgaitasun-**, **mendekotasun-** edo **gaixotasun-**egoera egiaztatzen duen **ziurtagiria** edo agiria.
- e) Baldintzak betetzen direnean, **genero-indarkeriaren biktima izateagatiko epaia**.

Laboral Kutxaren bezeroa **EZ** bazara, agiri hauek aurkeztu beharko dituzu:

- f) **Jabetza Erregistroaren Egiaztatzea**, inongo finkaren titularra **ez** dela egiaztatzen duena.
- g) **Esleipen-dekretuaren lekukotza, 2008/01/01etik aurrera atara zituzten etxebizitzaren irmotasuna eta emate-** edo jabetze-eginbidea adieraziz. Etxebizitzaren Funts Sozialari atxikitako edozein banketxek hasitako hipoteka-mailegua ez ordaintzeagatik edo **ordainean ematearen** ondorioz egindako betearazpen-demanda batek eragindako irtenarazpena, baldin eta alokairu soziala eskatzen badute. (Jardunbide Egokien Kodeari atxikitako emateetan izan ezik).

Onartzen dut Laboral Kutxak nire datuak erabiltzea Hipoteka-zordunen babesa indartzeko premiazko neurriei buruzko azaroaren 15eko 27/2012 Errege Lege Dekretuan jasotako Etxebizitzen Gizarte Funtza babesteko neurriak eskatzeko, dokumentu honetan deskribatzen diren termino zehatzetan.

## DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA

### Tratamenduaren arduraduna

Laboral Kutxa, José María Arizmendiarieta pasealekua, 20500 Arrasate / Mondragón.

Datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko: [protecciondatos@laboralkutxa.com](mailto:protecciondatos@laboralkutxa.com).

### Tratamenduaren legitimazio-oinarria

Datuen titularraren onarpen espresua.

Erakundeak, eskaera jaso ondoren, tratamendua egin behar du, legezko betebeharrak betez.

### Helburua

Laboral Kutxak emandako datu pertsonalak sartuko ditu bere informazio-sisteman eta eskaeraren kudeaketa eta garapen egokia bermatzeko helburu nagusiarekin erabiliko ditu.

### Datuen hartzaileak

Datuak agintari eta erakunde publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie, eskaera honetatik erator litezkeen betebeharrak betez. Hirugarrenak.

### Kontserbatzeko epea

Datuak gordeko dira legezko ekintzak preskribatzeko epean, tratamenduaren ondoriozko erantzukizunak eskatzeko, eta behar bezala blokeatuko dira.

### Eskubideak

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko eta eramateko eskubideak erabil ditzakezu [protecciondatos@laboralkutxa.com](mailto:protecciondatos@laboralkutxa.com) helbidera zuzenduz. Zure eskubideak bete ez direla uste baduzu, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Espainiako Agentzian edo beste agintaritzaren eskudun batean.

### Informazio gehigarria

Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, kontsultatu gure Laboral Kutxaren bezeroentzako datuak babesteko politika: <https://www.laboralkutxa.com/es/proteccion-de-datos>.

**Sinatuta:**

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ ko \_\_\_\_\_ (e) an \_\_\_\_\_ .

## **BALDINTZAK:**

[2013/01/17an formalizatutako etxebizitzaren Funtz Soziala Sortzeko Hitzarmenaren hirugarren eta laugarren klausulen laburpena].

**– 2008/01/01etik aurrera etxetik irtenarazitako pertsona fisikoak, Etxebizitzaren Funtz Sozialari atxikitako edozein banketxek hasitako hipoteka-mailegua ez ordaintzeagatik egindako betearazpen-eskariaren ondorioz.**

**– Etxebizitza esleituta amaitu den hipoteka-betearazpeneko prozedura baten xede izan diren pertsona fisikoak, etxebizitza horretatik benetan atera ez direnak eta alokairu-erregimenean okupatzen jarraitu nahi dutenak, hitzarmenean ezarritako baldintzetan.**

**– Etxebizitza ordainearen ematearen ondorioz galdu duten eta alokairu soziala eskatzen duten pertsona fisikoak (Jardunbide Egokien Kodeari atxikitako etxebizitzak izan ezik).**

**Familia Unitatea<sup>(\*)</sup> honako egoera hauetan egotea:**

- Diru-sarreraren multzoak ez du gainditzen Ondorio Askotariko Errenten Adierazle Publikoa baino 3 aldiz handiagoa den muga (IPREM): Adibide bezala, 2024 ko IPREM-a 8.400 euro (14 ordain sari)
- Jabetzako etxebizitzarik edo gozamen-eskubiderik ez izatea.
- Eta hurrengo kalteberatasun bereziko kasuren bat betetzea:

- Familia ugaria, indarrean dagoen legeriaren arabera.

- Guraso bakarreko familia-unitatea, bi seme-alaba edo gehiago ardurapean dituen.

- Gutxienez 3 urte arteko adingabe bat kide duen familia-unitatea.

- Familiako kideren batek ehuneko 33tik gorako desgaitasuna, mendekotasuna edo lanerako ezintasun iraunkor egiaztatua eragiten dion gaixotasuna aitortuta duen familia-unitatea.

- Hipoteka-zorduna langabezia dagoen eta langabezia-prestazioak agortu dituen familia-unitatea.

- Etxebizitza berean pertsona bat edo gehiago bizi diren familia-unitatea, hipotekaren titularrarekin elkartuta daudenak, eta pertsona horrek edo haren ezkontideak, odol-ahaidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko hirugarren mailarainoko ahaidetasun-lotura izateagatik, etxebizitza utzi ez badu, eta kideren bat desgaitasuneko, mendekotasuneko edo gaixotasun larriko egoeran badago, eta horrek aldi baterako edo modu iraunkorrean lanerako ezgaitzen baditu.

- Indarrean dagoen legeriaren arabera, genero-indarkeriaren biktimaren bat duen familia-unitatea.

-Funtsean integratutako etxebizitzak eskuratzeko aukera ematen duten baldintza subjektiboak zabalitzea, honako pertsona hauentzat:

- Seme-alaba adingabeak dituzten familia-unitateak.

- Aurretiko erretiroko edo erretiroko egoeran dauden adineko pertsona fisikoak, abal bidez seme-alaben edo biloben zorrak beren gain hartu dituztenak.

- Mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonak, baldin eta, egoera horiek egiaztatzeko eskumena duten gizarte-zerbitzuen txostenaren arabera, etxebizitza ezinbesteko aktiboa bada haien gizarteratzeari eta autonomiari eusteko.

- Gizarte-kalteberatasuneko inguruabarrak ez dituzten beste pertsona edo familia-unitate batzuk, baldin eta kreditu-erakundeek, udaletako gizarte-zerbitzuek edo Hirugarren Sektoroko Plataforman dauden gobernuz kanpoko erakundeek detektatzen badituzte eta kreditu-entitateen aurrean behar bezala justifikatzen badira; izan ere, egoera horiek egiaztatzeko eskumena duten gizarte-zerbitzuen txostenaren arabera, etxebizitza ezinbesteko aktiboa da haien gizarteratzeari eusteko

(\*) Honako hauek osatzen dute Familia Unitate bat: eskatzaileak, legez banandu gabeko ezkontideak edo inskribatutako izatezko bikotekideak, eta etxebizitzan bizi diren seme-alabek, haien adina edozein dela ere, tutoretza-, zaintza- edo familia-harreraren bidez lotutakoak barne.

**ENTREGATU SINATUTAKO IMPRIMAKI HAU ETA JUSTIFIKAZIO-AGIRIAK LABORAL KUTXAREN EDOZEIN BULEGOTAN.**